

EUSKARA BATZORDEAK 2018ko MARTXOAREN 22an IZANDAKO BILKURARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreratuak:

Marisa Aldamizetxebarria and (Euskara Zinegotzia)
Estiñe Astorkia and. (Euskara dinamizatzailea)
Igone Olabarria and.
Pili Ibarra (Berbalagun/ Aek)
Iratxe Garmendia (Bustuarialdeko Aek)
Bidane gartzia and.
Jon Argintxona jn.. (Bildu)
Luis Ortuzar jn. (Gernika BHI Institutua)
Ziortza Polin (EAJ)
Iñigo Magunagogeaskoa (Kultur Etxeko pr – Jaietako Z.)
Iñaki Arrazola (GRT)
Xabier Goiria (URE)
Luis Ortuzar jn. (Txara-Txara elkartea)
Leire Zabala and.
Idazkaria:
Bittor Zarrabeitia jna. (Euskara Teknikaria)

Hasiera ordua: 18:30

Amaiera ordua: 20:15

Ezin etorria zuritu dutenak:

Pernando Basterretxea jn. (Bustu. Euskaraz Bizi Elk.)
Rosa Okariz and.
Espe Uriarte and.

1).- 2019-2023 eperako Gernika-Lumoko ESEP (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana) edo Plan Estrategikoa eratzeko proposamena/txostena aurkeztu eta onartzea . (Eranskina I)

Udaleko euskara teknikariak aurretik emailaz bidalitako proposamena azaldu du.

Erabakia: proposamena ontzat eman da.

2).- Euskararen egungo egoerari buruzko hausnarketa orokorra egin, Gernika-Lumoko herriari dagokionean; pozteko eta kezkatzeko faktoreen taula egokitu .

Bertaratutakoek hausnarketa egin dute. Taldeka banatuta lehenengo, eta gero, talde handian. Eraitza hauxe izan da:



- Poztekoak
 - Eskolen arteko elkarlana
 - Enpresetan euskara planak garatzea
 - Herrian euskaraz bizitzea posible da
 - Zerbitzu publikoetan lehen aukera euskara da
 - Euskararen ezagutza maila
 - Prestigio dauka herrian euskarak
 - Herria hizkuntza aldetik ere erreferente da Bizkaian
 - Eragile desberdinen inplikazio euskararen erabilera bultzatzeko
 - Liburutegiko sare sozialak
- Kezkatzekoak
 - Umeen erabilera jaitsi egin da
 - Gurasoen arteko euskararen erabilera apala (whatsapp taldeetan...)
 - Etorri berriek ez dute beharrik sentitzen
 - Erdararen erabilera normalizat hartzen da
 - Ostalaritzan erdara nagusi
 - Kontzientziazio falta da → erlaxatuta gaude
 - Guraso eta eragile zuzenen lidergo falta
 - Sare sozialak: Udala ez da eredu
 - Politikarien lidergo falta, gaztelania egiten dute (batzuk)

3).- Aurrekoan onartutakoari lotuta, lan-mahaiak finkatu eta osatu (partaide bakoitzak hautatutakoaren arabera)

Partaide guztiei lan-mahaia aukeratzeko fitxa pasatu zaie eta bete dute.

4).- Norberak lekarkeena

- Euskara Batzordearen hurrengo bilerarako data aldatzeko proposatu dute hainbat kidek.
Erabakia: apirilaren 19rako aurreikusitako bilera maiatzaren 2an egingo da. Eta Ondorioz, maiatzaren 10erako aurreikusitakoa 30ean.
- Euskara dinamizatzaileak “2017-2018EPEKO PLAN ESTRATEGIKOAREN (ESEP: Euskara Sustatzeko Ekintza Plana) BALANTZEA ETA EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA” txostena banatu die kide guztiei, abiatu dugun prozesurako kontsulta-dokumentu gisa erabiltzeko. (Eranskina II)

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, amaitutzat jo da batzarra.

Izp.: Euskara Zinegotzia
Marisa Aldamizetxebarria

Izp.: Euskara Teknikaria (HNT1)
Bittor Zarrabeitia

